



## Euskadiko emakume gazteek gutxiago irabazten dute

Euskadiko emakume gazteek adin bereko gizonetako baino 266 euro gutxiago irabazten dute batez beste, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egin berri duen txosten batean agertzen denez.

Gero, lana bilatzerako garaian, emakume gazteek "estetikari buruzko eta amatasunaren inguruko galderak entzun behar izaten dituzte, gizonetako ez bezala", salatu du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak.



## Ziberjazarpena: WhatsApp bidez, eta, batez ere, neskei

Teknologia berriak baliatuta egiten den eskola jazarpena, ziberjazarpena edo ziberbullyinga, Espainian dauden

jazarpen kasuen laurdena da jada, "Ziberbullyingaren ikerketa, kaltetuen arabera" izeneko azterketak jaso duenez.

Mutua Madrileña eta ANAR fundazioek (Arriskuan dauden Ume eta Nerabeentzako Laguntza) egin dute, 2013 eta 2015 artean azken erakunde horren telefono zenbakian biktimek eta horien senideek egin zituzten deiak aztertu eta gero.

Eskola inguruko jazarpen kasuetan sexuen arteko oreka handiago dago biktimen artean. Ziberjazarpenean, ordea, neskek dira nagusi. Ikerketaren arabera, ziberjazarpenaren biktimak neskek dira gehienbat (kasuen %70ean). Kasurik gehienetan, sakelako telefonoa erabiltzen da jazarpena egiteko, gehienetan WhatsApp aplikazioaren bidez.

Gehienetan irainak jasotzen dituzte biktimek, baina baita mehatxuak eta euren kontrako zurrumurruak ere.



## Inperioak Bilbo hartuko du bihar

Bilbo prest dago jada Star Wars-en desfilea hartzeko. Darth Vaderrek eta 200 soldadu inperialak hiriko kaleetan barrena egingo dute larunbatean, Legion 501 nazioarteko elkartearen eskutik, 'Training Day' ekimenaren baitan.

Desfilea 17:30ean hasiko da, Kale Nagusiko Sota eraikinean, eta handik Jesusen Bihotza plazara abiatuko da, ondoren Casilda Iturrizar parkera egiteko. Bertan, 'Fan Zone' bat jarriko dute, eta,

20:00etatik aurrera, herritarrek argazkiak egin ahal izango dituzte Star Wars sagako pertsonaiekin.

The 501st Legion elkarteak 1997an sortu zen, AEBn, eta ospe handia du nazioartean, Inperio Galaktikoko jantziak eta 'Star Wars' sagako pertsonaien janzkerak zehatz-mehatz erreproduzitzen dituelako.

Bilboko desfilean, Finlandiatik, Portugaletik, AEBtik eta Espainiako hainbat lekutatik etorritako zenbait pertsonak hartuko dute parte. 50 herrialdetan du ordezkartza elkarteak, eta George Lucas bera du kide.

Desfileak helburu solidarioa ere izango du. Izan ere, eskumuturrak salduko dituzte, bi euroan, eta bertan bildutakoa garapen bidean dauden herrialdetara elgorriaren aurkako txertoak bidaltzera eta jantoki sozial batera bideratuko dute.

Gainera, hilaren 26an, tropa inperialak bisita egingo dute Bilboko Erruki Etxera eta Basurtuko Ospitalera. Bertan, opariak banatuko dituzte umeen artean. Hurrengo egunean, berriz, enkante solidarioa egingo dute, eta dende erakusleho lehiaketa egingo dute. Erabiltzaileek faboritua aukeratu ahal izango dute sare sozialen bidez. Itsasadarrak ere, 'Star Wars' sagaren bisita jasoko du, ontzi batean jaia antolatuko baitute.

## 500 milioi erabiltzailearen datuak lapurtu dizkiotela onartu du Yahook

2014ko amaieran 500 bat erabiltzailearen kontuetako informazioa lapurtu ziotela onartu zuen atzo Yahoo konpainiak. Besteak beste, izenak, helbide elektronikoak, telefonoak, urtebetetze datak, pasahitzak eta, kasu batzuetan, segurtasun galde-erantzunak ostu omen zizkioten.

Hala ere, babesik gabeko pasahitzak eta kreditu-txartelen edo banku-kontuetako datuak ez dituzte ostu, konpainiak abiatutako ikerketaren arabera.



Horren aurrean, pasahitzak eta segurtasun galderak aldatzeko gomendatu die konpainiak erabiltzaileei. Halaber, euren kontuetan izan litezkeen “gauza susmagarriak” ongi aztertzeko eta helbide elektroniko susmagarrietatik jasotako fitxategirik ez deskargatzeko gomendatu die Yahook erabiltzaileei.

### Erleak eta tximeletak Errekatxoan

Errekatxoko Interpretazio Zentroa CIHMA-Luis Choya Almarazek IgandEROAK deituriko ekimenean zenbait tailer eskaintzen ditu 6-12 urte bitarteko umeei hilabete bakoitzeko azken igandean. Oraingo honetan, erle eta tximeleta distiratsuak diseinatuko dira, erabilitako materiala aprobetxatuz. Jarduera 12.00ak eta 14.00ak bitartean egingo da zentroan bertan, eta aurrez izena eman gabe parte hartu ahal izango da.

### Gasteizek hartuko du saskibaloia lehen ikuskizuna

**Irailak 23, 19:00** Laboral Kutxa Baskonia-Herbalife Kanaria Handia. **21:30** Real Madril-FC Bartzelona Lassa

**Irailak 24, 19:00** Finala



### EGURALDIA Iritsi da nahasia eta aldakorra izango den udazkena

Atzotik aurrera udazkena da munduaren ipar hemisferioan, ez da hala, ordea, hego hemisferioan. Lau urtaro ditugu bietan eta pare bat ekuatorean (seitán banatzen omen dute Australiako aborigenek). Aurtengo udan tenperatura historikoak izan ditugu. 40 gradura iritsi dira termometroak irailean.

Bihar giro eguzkitsua espero dugu. Hego-haizea ibiliko da, bolada gogorrekin lehen orduetan, eta ondorioz, tenperatura nabarmen igoko da; bertan 30°C inguruko maximoak lortuko ditugu. Arratsaldean, erdi mailako hodeiak ugarituz joango dira.

Igandean, aldiz, eguraldia erabat ezberdina izango da. Goiz partean fronte batek lurraldea zeharkatuko du eta zerua oso hodeitsu utziko du. Euria egingo du, tarteka zaparrada mardulagoak izango dira ipar partean. Arratsaldean, berriz, atertuz joango da, eta gauean ostarteak zabalduko dira. Ipar-mendebaldeko haizeak joko du, bolada gogor batzuekin eta tenperatura maximoak nabarmen jaitsiko dira, beroenak 20-22 °C-ren bueltan geratuko baitira.

## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2016



### Dena prest

Ertzaintzak eta udaltzaingoek segurtasun dispositibo berezia ezarriko dute igandean, hauteskunde erakundeekin elkarlanean, prozesuaren normaltasuna zaintzeko.

5.000 ertzainek eta udaltzainek hartuko dute parte, eta hauteskunde prozesuaren garapen normala bermatzeko prozesu osoan mantendu den operatiboaren puntu gorena izango da.

Ertzaintzaren unitate eta zerbitzu espezializatu guztiek hartuko dute parte. Zehazkiago, agenteen erdiak hauteslekuak zuzenean zaintzeaz eta babesteaz arduratuko dira. Gainerakoek herritarren babeserako lanak egingo dituzte, eta zeregin horretan Ertzaintzaren unitate eta zerbitzu espezializatuaren laguntza ere izango dute (lehergaiak, txakurrak, helikopteroak, lurpea, brigada mugikorra eta eta abar). Egun osoa emango dute jardunean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 3.000 pertsona baino gehiagoko taldea prest du datorren hauteskundeetako boto zenbaketa biltzeko eta hedatzeko.

Hautesontziek ematen dituzten emaitzak hauteslekuetatik transmitituko zaizkio Zuzendaritzaren Prozesamendu Zentroari, eta, ondoren, herritarrei jakinaraziko zaizkie.